










**ikaslearen
liburua**

**GAZTEAK
eta ADMINISTRAZIOA**

| aurkibidea |

	3	Sarrera
	5	A: Gazteak eta administrazioa
	20	B: Gaztelekuak eta gaztetxeak
	28	C: Parrandara autobusean
	32	D: Isunak
	38	E: Herrietako festak
	43	F: Kirolak
	47	G: Autoebaluazio-orria

Administrazioa? Puuuf...! Zer da hori?

Betidanik zerbait iluna eta urruna izan da administrazioa, batez ere, gazteontzat. Batzuetan, ordea, nahitaez administraziora jo beharra izaten dugu geure gauzatxoak konpontzeko, intereseko gaien inguruko informazioa jasotzeko...

Hemen duzu "gazteak eta administrazioa" izeneko unitate didaktikoa. Unitate honetan zehar hainbat gai jorratuko dituzu, esate baterako, gaztelekuak eta gaztetxeak, kirola, isunak, inguruetako eta herriko jaiak...

Unitate honetan proposatutakoa egoki egin ahal izateko, beharrezkoa izango duzu "Idatziak" liburuxka erabiltzea. Liburu hori Debagoieneko udaletako euskara zerbitzuek argitaratu dute.

Lan honekin helburu bat baino gehiago lortu nahi ditugu. Hemen dituzu helburu horietako batzuk:

- Baliteke oraindik administrazioarekin harreman zuzenik ez izatea, baina, seguraski, noizbait, zerbait eskatu edo erreklamatu beharra izango duzu. Horrelakoak nola egin daitezkeen ikasiko duzu unitate honetan.
- Ia denok izan dugu noizbait administraziora jo beharra zerbaitengatik kexatzeko, zerbait eskatzeko...Administrazioa, neurri batean behintzat, geure zerbitzura dago eta, beste zerbitzu batzuekin gertatzen den moduan, eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatzen jakin behar dugu.
- Talde lanean jardun beharko duzu. Aukera izango duzu zure ikaskideekin eta gela barruan zeuen intereseko gaiez euskaraz hitz egiteko.
- Zenbait kasutan erabakiak hartu beharko dituzu ikaskideekin batera. Horretarako eztabaidatu egin beharko duzue eta zuen artean ados jarri beharko zarete. Lankidetzaz ezinbestekoa da.
- Gizarteak, gaur egun, pertsona sortzaileak eskatzen ditu, erabakiak hartzeko gaituak eta, egoera batzuen aurrean nola jokatu jakingo dutenak. Unitate honetan horixe da, hain zuzen ere, egin beharko duzun lanetako bat, izan ere, zeure esperientziak kontatzeaz gain, batzuetan, iritzia eman beharko duzu eta aldeko edo kontrako jarrera hartu, beti ere, arrazoituz.

Seguru gaude jorratuko dituzun gaiak zure gustukoak izango direla, beraz, has zaitez lanean!

A: gazteak eta administrazioa

Unitate honetan gazteek administrazioarekin izan ditzakezuen harremanak landuko dituzue. Beharbada, izan duzue harremanen bat: salaketa, eskaera egiteko. Horrela ez bada ere, lasai, izan ere, izango duzu aukera gaia sakontzeko.

1 Gazteak eta administrazioa

1.1

➤ Hausnartu galdera hauen inguruan:

- Izan duzu inoiz harremanik administrazioarekin? Joan zara inoiz Udaletxera (gazte-bulegora, liburutegira, kontsumo-bulegora...) edo Diputaziora?
 - Zer nolako harremanak?
 - ✓ Ahozkoak
 - ✓ Idatzizkoak
 - Zein helbururekin?
 - ✓ Salatzea
 - ✓ Eskatzea
 - ✓ Zerbaiten berri ematea
 - ✓ ...
- Nola hartu zaituzte? Behar beste azalpen jaso duzu?
- Zeuk ez baduzu harremanik izan, ezagutzen duzu izan duen inor? Azal ezazu honen inguruan dakizuna.

➤ Orain talde txikitan jarri eta denon artean komentatuko dituzue erantzunak.

➤ Zuetako bat bozeramailea izango da eta puntu garrantzitsuenen berri emango dio talde osoari.

➤ Talde osoan komentatu.



"Gazteen eta administrazioaren artean sekulako leizea dago."

➔ Irakurri Lorea Agirrerri egindako elkarrizketaren sarrera eta lehenengo galdera:

LOREA AGIRRE:

"Gazteen eta administrazioaren artean sekulako leizea dago"

Gazteen eta administrazioaren arteko harremanak ez dira errazak. Are gutxiago, gehien mugitzen diren gazteei gagozkielarik. Lorea Agirre 32 urteko kazetari beasaindarrak harreman hauek, gazte lekuak, gaztetxeak eta abar ikertu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz. GAZTETXULOko lagunok berarekin aritu gara solasean.

Zein da zure txostenaren helburua?

Azken urteotan udal askotan gazte teknika-riak hasi dira lanean, gazte lekuak ere zabaldu dituzte, gaztetxeak ere hor daude, kultur etxeak... Hala ere, oro har gazteen eta administrazioaren artean ez dago harremanik,

sekulako leizea dago, administrazioak ez daki gazteek zer nahi duten eta gazteek ez dakite, esaterako, administrazioak zein laguntza ematen dituen. Beraz, txostenaren helburua harreman hori nola bidera daitekeen hausnartzeko lehen urratsa ematea da.

↘ Irakasleak esango dizu zein testu zati irakurriko duzun. Irakurri arretaz, gero ikaskideei kontatu beharko diezu eta.

A ZATIA

Arazoari, batez ere, kultur aldetik heldu diozu, hau da, gazte kulturari dihardute-nek nolako harremana duten erakunde publikoekin (udalak, diputazioak...).

Baina, zer da gazte kultura?

Gazteek beraiek sortzen dutena. Duela hogeit hamar urte Europako zenbait herritan baze- goen gazte kultura, baina Euskal Herrian ez zegoen horrelakorik, hau da, oro har, gure gurasoek eta gure aitona-amonek kontsumitu duten kultura bera izan da. Duela hogeit hamar urte, aldiz, gazte kultura sortzen hasi zen: pop, rock, komikiak...

Dena den, oso kontzeptu zabala da, alde asko ditu, gazte guztiak ez baitira berdinak, eta horrez gain, gaur egun negozio handia da.

Azken hogeit hamar urteotan aldaketa handirik gertatu al da gazte kulturari?

Ez dut uste. Oso mundu dinamikoa da hau, neurri batean kontsumo azkarrekoa, eta gazte sortzaile asko berritzaileak dira. Dena den, ez da sakoneko aldaketa handirik izan, kezkak berak dira eta antzeko gauzak egiten direla uste dut. Askotan esaten da duela hamabost edo hogeit hamar urteko gazteak askoz azkarragoak, borrokalariagoak edo berritzaileagoak zirela, baina seguru asko, ez zen horrela izango.

“ *Gizarteak eta komunikabide-ek gazteak satanizatu egiten dituzte askotan* ”

B ZATIA

Txostenean diozu gazteei buruz diskurtso ezkorra egiten dela, beti bortizkeriarekin edo drogarekin lotzen dituztela.

Bai, gizarteak eta komunikabideek gazteak satanizatu egiten dituzte askotan. Hori toki guztietan gertatzen da, baina hala ere, euskal gizarteak ez da gizarte arrunta, gatazka propioak ditu, eta horrexegatik, errazagoa da gazteak satanizatzea.

Administrazioak gazte dinamikoa problematikotzat jotzen du. Gure herrietan mugitzen diren gazteak zalantzan jartzen dute agintea eta hori ona da, bai gazteentzat, edozein gauza onartzeko prest ez daudelako, eta bai administrazioarentzat, modu irekiago eta demokratikoago batez jokatzeko ikasi behar duelako. Euskal Herrian gehien mugitzen diren gazteak joera politiko batekoak izan ohi dira eta horrexegatik, administrazioak uko egiten die beraiei eskaerei. "Haiei hau ematen badiegu, beste gazteei ez diegu emango" diote. Baina kontua da besteak ez direla mugitzen. Hori hanka-sartze larria da, beldur gutxiago izan behar da.

Erakundeek gazteentzako ekimenak bideratzen dituztenean, askotan ez dute inongo oihartzunik. Zergatik?

Batzuetan horixe gertatzen da, beste batzuetan, ez. Zenbait herritan gaztetxeak ondo funtzionatzen zuen eta administrazioak gaztetxea itxi, haren ordez gazte-lekua jarri du eta gaur egun ez doa inor. Zergatik? Alternatiba hori ez delako demokratikoa izan, gazteek ez dutelako gazte lekuaren kudeaketan parte hartzen, dena goitik behera zuzentzen delako.

C ZATIA

Zer behar dute honelako guneek ondo funtziona dezaten?

Gazte-lekuak administrazioak sortu, baina gazteekin bat kudeatu behar ditu. Erakundeek gazteekin hitz egin behar dute eta beraiekin negoziatu. Ez dut esaten hamalau milioi eskatzen badituzte, eman behar zaizkienik, beharbada bai, beharbada ez, baina hori bai, gazteekin negoziatu behar dute. Oñatiko gazte-lekuaren adibidea oso esanguratsua da; administrazioak herriko gaztetxea itxi ondoren sortu zuen, eta hala ere, oso harrera ona izan du, bertako teknikariak aukera eman dielako gazteei kudeaketan parte hartzeko. Hemen, Euskal Herrian ez dago ohitura handirik, baina honelako esperientziak aspaldi egiten hasi ziren Europa iparraldean. Herri horietan tradizio demokratiko handiagoa dute eta oso argi

dute eremu horiek gizartearenak direla eta hortaz, gizarteak berak kudeatu behar dituela.

Gazte sortzaileek, musikariek, idazleek edota antzerkilariek esaterako, zein oztopo dute beraien jarduerak aurrera eramateko?

Araututako ikasketetatik kanpo, ez dute eskaintza handirik. Hau da, herri askotan artelan bat egin nahi duen gazte batek ez du nora jo. Difusioa ere arazoa da, musika talde pila dago, baina zaila dute haien lanak ezagutaraztea. Erakundeek azken urteotan azpiegitura asko egin dute, baina hala ere, baliabide gehiago bideratu beharko lirateke: argazkilaritza tailerrak, teknologia berriak... Administrazioak askoz diru gehiago bideratu beharko luke gazteentzat.



↘ **Elkartu ikaskideekin eta kontatu elkarri irakurri duzuen.**

↘ **Zeuk irakurritakoarekin eta ikaskideek esandakoarekin erantzun idatziz eta bakarka ondoren dituzun galderei:**

1. Arazoari, batez ere, kultur aldetik heldu diozu, hau da, gazte kulturari dihardutenek nolako harremana duten erakunde publikoekin (udalak, diputazioak...). Baina, zer da gazte kultura?
2. Azken hogeitun urteotan aldaketa handirik gertatu al da gazte kulturari?
3. Txostenean diozu gazteei buruz diskurtso ezkorra egiten dela, beti bortizkeriarekin edo drogarekin lotzen dituztela.
4. Erakundeek gazteentzako ekimenak bideratzen dituztenean, askotan ez dute inongo oihartzunik. Zergatik?
5. Zer behar dute honelako guneek ondo funtziona dezaten?
6. Gazte sortzaileek, musikariek, idazleek edota antzerkilariek esaterako, zein oztopo dute beraien jarduerak aurrera eramateko?

↘ **Elkartu berriro ere taldeka (testu zatiak elkarri kontatzeko elkartu zeretenok) eta erkatu idatzitakoa.**

➔ Har ezazue jatorrizko testua eta ikus ezazue ea zuek kontatutakoa eta idatzitakoa bat datorren orain irakurriko duzuenarekin.

LOREA AGIRRE:

“Gazteen eta administrazioaren artean sekulako leizea dago”

Gazteen eta administrazioaren arteko harremanak ez dira errazak. Are gutxiago, gehien mugitzen diren gazteei gagozkielarik. Lorea Agirre 32 urteko kazetari beasaindarrak harreman hauek, gazte lekuak, gaztetxeak eta abar ikertu ditu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz. GAZTETXULOko lagunok berarekin aritu gara solasean.

Zein da zure txostenaren helburua?

Azken urteotan udal askotan gazte teknikariak hasi dira lanean, gazte lekuak ere zabaldu dituzte, gaztetxeak ere hor daude, kultur etxeak... Hala ere, oro har gazteen eta administrazioaren artean ez dago harremanik, sekulako leizea dago, administrazioak ez daki gazteek zer nahi duten eta gazteek ez dakite, esaterako, administrazioak zein laguntza ematen dituen. Beraz, txostenaren helburua harreman hori nola bidera daitekeen hausnartzeko lehen urratsa ematea da.

Arazoari, batez ere, kultur aldetik heldu diozu, hau da, gazte kulturari dihardutenek

nolako harremana duten erakunde publikoekin (udalak, diputazioak...). Baina, zer da gazte kultura?

Gazteek beraiek sortzen dutena. Duela hogeitau urte Europako zenbait herritan bazegoen gazte kultura, baina Euskal Herrian ez zegoen horrelakorik, hau da, oro har, gure gurasoek eta gure aiton-amonek kontsumitu duten kultura bera izan da. Duela hogeitau urte, aldiz, gazte kultura sortzen hasi zen: pop, rock, komikiak...

Dena den, oso kontzeptu zabala da, alde asko ditu, gazte guztiak ez baitira berdinak, eta horrez gain, gaur egun negozio handia da.

Azken hogei urteotan aldaketa handirik gertatu al da gazte kulturari?

Ez dut uste. Oso mundu dinamikoa da hauexek, neurri batean kontsumo azkarrekoa, eta gazte sortzaile asko berritzaileak dira. Dena den, ez da sakoneko aldaketa handirik izan, kezkek berak dira eta antzeko gauzak egiten direla uste dut. Askotan esaten da duela hamabost edo hogeitako gazteak askoz azkarragoak, borrokalariagoak edo berritzaileagoak zirela, baina seguru asko, ez zen horrela izango.

Txostenean diozu gazteei buruz diskurtso ezkorra egiten dela, beti bortizkeriarekin edo drogarekin lotzen dituztela.

Bai, gizarteak eta komunikabideek gazteak satanizatu egiten dituzte askotan. Hori toki guztietan gertatzen da, baina hala ere, euskal gizartea ez da gizarte arrunta, gatazka propioak ditu, eta horrexegatik, errazagoa da gazteak satanizatzea.

Administrazioak gazte dinamikoaren problematikotzat jotzen du. Gure herrietan mugitzen diren gazteek zalantzan jartzen dute agintea eta hori ona da, bai gazteentzat, edozein gauza onartzeko prest ez daudelako, eta bai administrazioarentzat, modu irekiago eta demokratikoago batez jokatzeko ikasi behar duelako. Euskal Herrian gehien mugitzen diren gazteak joera politiko batekoak izan ohi dira eta horrexegatik, administrazioak uko egiten die beraien eskaerei. "Haiei hau ematen badiegu, beste gazteei ez diegu emango" diote. Baina kontua da besteak ez direla mugitzen. Hori hanka-sartze larria da, beldur gutxiago izan behar da.

Erakundeek gazteentzako ekimenak bideratzen dituztenean, askotan ez dute inongo oihartzunik. Zergatik?

Batzuetan horixe gertatzen da, beste batzuetan, ez. Zenbait herritan gaztetxeak ondo funtzionatzen zuen eta administrazioak gazte-

txea itxi, haren ordean gazte-lekua jarri du eta gaur egun ez doa inor. Zergatik? Alternatiba hori ez delako demokratikoa izan, gazteek ez dutelako gazte lekuaren kudeaketan parte hartzen, dena goitik behera zuzentzen delako.

Zer behar dute honelako guneek ondo funtziona dezaten?

Gazte-lekuak administrazioak sortu, baina gazteekin bat kudeatu behar ditu. Erakundeek gazteekin hitz egin behar dute eta beraien negoziatu. Ez dut esaten hamalau milioi eskatzen badituzte, eman behar zaizkienik, behar bada bai, behar bada ez, baina hori bai, gazteekin negoziatu behar dute. Oñatiko gazte-lekuaren adibidea oso esanguratsua da; administrazioak herriko gaztetxea itxi ondoren sortu zuen, eta hala ere, oso harrera ona izan du, bertako teknikariak aukera eman dielako gazteei kudeaketan parte hartzeko. Hemen, Euskal Herrian ez dago ohitura handirik, baina honetako esperientziak aspaldi egiten hasi ziren Europa iparraldean. Herri horietan tradizio demokratiko

handiagoa dute eta oso argi dute eremu horiek gizartearenak direla eta hortaz, gizarteak berak kudeatu behar dituela.

Gazte sortzaileek, musikariek, idazleek edota antzerkilariek esaterako, zein oztopo dute beraien jarduerak aurrera eramateko?

Araututako ikasketetatik kanpo, ez dute eskaintza handirik. Hau da, herri askotan arte lan bat egin nahi duen gazte batek ez du nora jo. Difusioa ere arazoa da, musika talde pila dago, baina zaila dute haien lanak ezagutaraztea. Erakundeek azken urteotan azpiegitura asko egin dute, baina hala ere, baliabide gehiago bideratu beharko lirake: argazkilaritza tailerrak, teknologia berriak... Administrazioak askoz diru gehiago bideratu beharko luke gazteentzat.

“ *Gizarteak eta komunikabideek gazteak satanizatu egiten dituzte askotan* ”

1.4

➤ **Eman ahoz zure iritzia, talde txikitan jarrita, Loreak egiten dituen baieztapen hauen inguruan:**

- "Oro har, gazteen eta administrazioaren artean ez dago harremanik, sekulako leizea dago. Administrazioak ez daki gazteek zer nahi duten eta gazteek ez dakite, esaterako, administrazioak zein laguntza ematen dituen". Egia? Zer egin daiteke leize hori arintzeko?
- "Gizarteak eta komunikabideek gazteak satanizatu egiten dituzte askotan". Egia al da?
- "Administrazioak gazte dinamikoa problematikotzat jotzen du". Zer da gazte dinamikoa? Zergatik jotzen du problematikotzat?
- "Zenbait herritan gaztetxeak ondo funtzionatzen zuen eta administrazioak gaztetxea itxi, haren ordeztu gazte-lekua jarri du eta gaur egun ez doa inor. "Zergatik?" Zergatik itxi? Zergatik ez doa inor?
- "Administrazioak askoz diru gehiago bideratu beharko luke gazteentzat". Zertarako?

➤ **Talde bakoitzean aukera ezazue bozeramaile bat. Puntu bakoitzaren inguruan taldetxoan esandakoa laburbildu beharko du talde osoaren aurrean.**

2 Eskabideak nola egiten diren

2.1

Denok dakigu hemen inork ez duela ezer doan ematen. Are gutxiago, eskatzen ez bada. Horixe da, hain zuzen ere, administrazioarekiko harremanetan gehien erabiltzen den idazki mota: eskaera.

Baina, zenbat atal izaten ditu horrelako idatzi batek?

Horretarako, lehenengo, eskaera-orri bat aztertuko duzue, eta gero, HAEK gai horren inguruan dioena irakurriko.

Irakur ezazu hurrengo orrian daukazu eskaera-orria. Bertan txozna bat jartzeko eskaria duzu.

Aitor Goikoetxea Esnal
Gazte zerbitzua
Arrasateko Udala

TXOZNA JARTZEKO ESKAERA

Eskatzailearen datuak

Izen-abizenak: Elena Argarate Laiz
NA zk.: 16.996.556
Helbidea: Udalaitz kalea 8, 6. E
20500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Telefonia: 943-79 14 28

Azalpena

- Aurtan, 2004. urteko uztailean, hain zuzen ere, Arizmendi ikastolako DBHko 4. mailakook kurtso amaierarako bidaia egingo dugu.
- Bidaia hori egin ahal izateko beharrezkoa dugu dirua lortzea; izan ere, helburua denok joatea da, ez dadila inor geratu joan gabe diru arazoengatik.

Eskaera

- Santamas jaietan Monterronen, beste txoznekin batera, txozna jartzeko baimena ematea.
- Argia eta ura Udalak ordaintzea.

Eskatutakoa onartuko duzulakoan, ongi izan.

Arrasaten, 2004ko urriaren 3an



Elena Argarate Laiz

↘ Zenbat atal ikusten dituzue eskaera-orri horretan?

↘ Hemen, azpiko taulan, dauzkazu atal guztiak, baina desordenatuta daude. Zure lana atal horiek goiko eskaera-orrian txertatzea da, baina, dagokien lekuan. Adibidez:

norentzakoa >

Aitor Goikoetxea Esnal
Gazte zerbitzua
Arrasateko Udala

Norentzakoa, izen-abizenak, eskaera, sinadura, azalpena, oina / amaierako esaldia, toki-egunak, eskatzailearen datuak, izenburua

↘ Erka ezazu egin duzun lana ondokoarekin.

↘ Irakasleak zuzenketa-orria banatuko dizue eta egin itzazue behar diren zuzenketak.

↘ Orain, HAEEK gai horren inguruan dioena irakurriko duzue. Atal bakoitza irakurritakoan, 13. orrialdera joko duzue teorian irakurritakoa praktikan nola gauzatzen den ikusteko.

ESKABIDEA

TEORIA

Nondik-norakoak

Administrazioan zer edo zer eskatzeko erabiltzen den idazkia da eskabidea.

Eskabideak, askotan, espediente bati hasiera ematen dio.

Gai jakin bati buruzko eskabide asko egin behar direnean, horretarako propio sortutako idazki-ereduak izaten dituzte erakundeek. Hala ere, beste askotan, eskatzaileak berak sortu behar izaten du eskabidea.

Idazteko irizpideak

Oro har, bi modu daude eskabideetako informazioa antolatzeko: esaldi luzeen bidez edo datuak zerrenda bidez emanda. Azter ditzagun bi adibideok:

Nik, Lorenzo Amurrio Altunak, NA zk. 15.998.789 izan eta Portugaleten, Urbieta kaleko 14, 3. eskuinean bizi naizen honek,

edota

ESKATZAILEAREN DATUAK:

Izen-abizenak: Lorenzo Amurrio Altuna

Helbidea: Urbieta kalea 14, 3. esk.

48920 Portugalete

NA zk.: 15.998.789

Adibide honetan ez dugu datu gehiegi jaso; eta beraz, bide biak egokiak dira. Baina, eskabidegilearen zehaztasun gehiago jaso nahi izan eta esaldia luze eta korapilatsua geratzen dela ikusiz gero, bigarren bidetik jo behar da argitasunaren mesedetan.

Osagaiak

Norentzakoa

Goialdean, eskuinean, eskabidea nori aurkezten diogun adierazten dugu. Bertan, ondorengoak jasotzen dira: hartzailearen izena (ezagutzen bada), bere kargua eta erakunde, sail edo administrazio-atalari buruzko datuak. Hori guztia orriaren behealdean ere eman daiteke.

Izenburua

Eskabidearen izenburuak, besteak beste, honakoak adierazi behar ditu: zer-nolako idazki-mota den eta eskabidearen gaia zein den. Hona hemen zenbait eskabideren izenburuak:

Udako ikastaroetarako eskabidea

Opor-egunak aldatzeko eskabidea

Euskara ikasteko eskabidea

Eskatzailearen datuak

Eskabideetan, eskatzailearen datu hauek jaso behar izaten ditugu: izen-abizenak, nor-tasun-agiriaren zenbakia (edo Identifikazio Fiskaleko Zenbakia - IFZ) eta helbidea.

Jaioteguna, telefonoa, lanbidea eta beste hainbat datu aukerakoak dira.

Enpresa edo erakundeen kasuetan, NA zenbakiaren ordeztu derrigorrezkoa da Identifikazio Fiskalaren Kodea (IFK) adieraztea.

Azalpena

Eskaera egiteko arrazoiak ematen dira atal honetan. Arrazoi hauek bi modutara aurkez daitezke: *honako hau / hauxe ADIERAZTEN DUT* tankerako formula erabiliz, edo *AZALPENA* hitzaz baliatuz.

Hona hemen lehenengo bideari jarraituta egindako eskabide bat:

Honako hau ADIERAZTEN DIZUT:

Aretxabaletako Udalak kultur dinamizatzaile lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketarako deia egin duela, eta lanpostuaren oinarrietan zehazten diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Eskabide hori bera AZALPENA hitza erabiliz:

AZALPENA

- Aretxabaletako Udalak kultur dinamizatzaile lanpostua betetzeko oposizio-lehiaketarako deia egin du*
- Lanpostuaren oinarrietan zehazten diren baldintza guztiak betetzen ditut.*

Arrazoi gutxi eman behar bada, lehen bidea guztiz onargarria izan daiteke. Azalpen asko badago, berriz, esaldiak pilatu egiten dira, eta aditzak -(e)la markaz josi. Horrelakoetan, hobe da AZALPENA jarri eta horren azpian, esaldi laburrak eta soilak idaztea.

Eskaera

Hauxe dugu eskabide-orriaren muina. Eskatutakoa bi era hauetako batean adieraz dezakegu:

*Hori dela eta / horregatik... honako hau / hauxe **ESKATZEN DIZUT***

formularen bidez edo, besterik gabe:

ESKAERA

Bata zein bestea erabiltzen dugula, eskatutako guztiak banan-banan eta egitura berberaz adierazi behar dira. Honelako nahasketak ez dira batere egokiak izaten:

... *honako hau* **ESKATZEN DIZUT:**

- *Jaietan txozna jartzeko baimena emateko.*
- *Antzerki emanaldia antolatzeke diru laguntza ematea.*
- *Frontoiko zorua konpon dezatela.*

Oina

Eskabideen oinean datu hauek jasoko ditugu:

- Eskertzeko edo agurtzeko esaldia.
- Toki-egunak
- Izenpea.
- Izen-abizenak.
- Kargua.

Eskabideetan eskatzailearen datuak goian adierazten ditugunez, ez da beharrezkoa datu horiek hemen berriz ere errepikatzea. Horregatik, eskabidearen oinean nahikoa da datu hauek jasotzea:

- Eskertzeko edo agurtzeko esaldia. Esaterako:

Eskatutakoa onartuko duzulakoan, ongi izan.

- Izenpea.
- Toki-egunak.

↳ Irakur ezazu ondorengo eskabidea, eta binaka:

1. Begiratu ea atal guztiak dauden, atal bakoitzean behar den informazio guztia dagoen eta informazio hori egokia den. Atalen bat falta bada, erabaki ezazue zeuek zer jarri. Horretaz gain, zerbait oker idatzita badago, zuzendu.
2. Bereiz itzazue eskariaren atalak. Izan ere, administrazioari zuzentzen zaion edozein eskaritan, beti hiru zati argi egoten dira: NORK egiten duen eskaria, ZER eskatzen duen eta NORI zuzentzen dion eskaria.

Izen-deiturak: Peio Alkorta Etxebeste
 Jaioteguna: 1986ko martxoaren 17an
 Helbidea: Elizondo kalea 17, 2. esk.
 Herria: Gurtegi
 NA zk.: 11.978.766
 Telefonoa: 943 67 57 94

Gaiaren azalpena:

Nire etxearen azpian lokal bat daukagu. Orain arte itxita egon da eta ez du inork erabili. Lagunok non bildu ez daukagunez, eta lokala nire gurasoena izanda, txukuntzea pentsatu dugu bertan egon ahal izateko. Horretaz gain, musika taldea eratu berria dugu eta entseatzeko primeran datorkigu aipatutako lokala.

Eransten diren agiriak:

- Lokalaren jabetzaren titulua.
- Atartekoen baimena sinatuta.

Nire eskaria onartuko duzuelakoan, agur t'erdi.

Gurtegi, 1991ko maiatzaren 5a

GURTEGIKO ALKATE ANDREA.
 GURTEGI.

NORK

ZER

NORI

2.3

- Irakaslearekin batera zuzendu. Horretarako, zuetako batek idatzita daukana azaldu behar du. Besteok, zalantzarik baduzue, galdetu irakasleari.

2.4

- Ikusten duzunez, horrelako idazkietan beti jarri behar dugu data. Nola jartzen duzu zuk data normalean?
Begiratu Euskaltzaindiak zer dioen:

DATAREN IDAZKERA

Datak idazteko orduan, hauek dira forma erabilienak, eta Euskaltzaindiak hobesten dituenak.

1996ko uztailaren 7a edo 1996ko uztailaren 7an

Toki izena erantsiz gero,

Elgeta, 1996ko uztailaren 7a edo Elgetan, 1996ko uztailaren 7an

Zenbakiak edozein izen moduan deklinatzen dira, eta zifren atzetik tarterik utzi gabe erantsi behar zaie deklinabide atzizkia.

1996ko uztailaren 7a / 7an / 8rako...

Kontuan izan zifraren atzetik puntu idazten baldin badugu, -garren esan nahi duela, eta deklinabide atzizkia puntuari erantsi besterik ez dugula egin behar. Halaber, urtea zenbakiekin idazten baldin badugu, tarteko punturik gabe idatziko dugu.

Elgeta, 1997.eko / 1994.etik (ondo)

Elgeta, 1.997ko azaroaren 17a (txarto)

Ez ahaztu -au diptongoa ez dela kontsonantetzat hartzen. Orduan,

Elgeta, 1994ko otsailaren 4an (ondo)

Elgetan, 1994eko otsailaren 4ean (txarto)

Gogoratu baita ere, hilak eta aste egunak letra xehez idatzi behar dituzula.

1996ko azaroaren 7a, astelehena

B: gaztelekuak eta gaztetxeak

1 Iritziak eta informazioa trukatzeko

1.1

Aurreko atazan gaztetxeen gaia ukitu dugunez, hel diezaiozun gai horri. Herri batzuetan gaztetxeak omen daude, eta beste batzuetan, berriz, gaztelekuak. Zertan ote dira antzekoak eta zertan ezberdinak?

➔ Taldeka jarri eta osa ezazue ondorengo taula

GAZTETXEAK ETA GAZTELEKUAK

	ZERTAN DIRA BERDINAK	ZERTAN EZBERDINAK
Giroa		
Gestioa		
Azpiegitura		
Egiten diren ekintzak		
Ibiltzen den jendea		



- **Talde bakoitzean bozeramaile bat izendatu eta zuen artean esandakoaren berri eman die-zaiola talde osoari. Klaseko guztion artean taula osatu.**
- **Azter dezagun, taldeka, zuen herriaren egoera:**
 1. Badago gaztetxerik edo gaztelekurik?
 2. Zu joaten zara? Zergatik bai / ez?
 3. Zein ekintza egiten dira bertan? Ala beste taberna bat besterik ez da?
 4. Zer-nolako harremana dute udaletxekoekin?
- **Zalantzaren bat baduzue kontsulta ezazue beste taldekoekin.**

1.2

"Eibarko Errota gaztelekua"

- **Irakurri ondorengo galderak:**
 1. Zeini zuzenduta dago?
 2. Zein helbururekin zabaldu dute?
 3. Zein hutsune dute adin horretako gazteek?

4. Zeri esaten dio zubi-lana?

5. Zein zerbitzu eskaintzen ditu gaztelekuak?

-
-
-
-
-
-

6. Nola hartu dute gazteek? Joaten dira gaztelekura?

➤ **Entzun arretaz Eibarko gaztelekuari buruzko elkarrizketa.**

➤ **Orain, binaka, erantzun lehen irakurritako galderari.**

1.3

➤ **Denon artean zuzendu**

1.4

➤ **Jar zaitetze berriro taldeka eta har ezazue hasierako taula. Entzun duzuenarekin eta aurreko atazan Lorea Agirrerri egindako elkarrizketarekin osatu informazioa, eta bete taulako hutsuneak.**

➤ **Talde txikitan jarrita puntu honen inguruan eztabaidatu:**

1. Zuen ustez izango luke arrakastarik horrelako gazteleku batek Arrasaten? Bi balizko egoera:

– Gaztetxea egonda:

✓ Zergatik bai?

✓ Zergatik ez?

– Gaztetxerik egon ezean:

✓ Zergatik bai?

✓ Zergatik ez?

2

Udaletan arlo ezberdinak daude

2.1

Zerbitzu publikoak kudeatzeko Udala ARLOTAN egituratuta dago. Guk idazten dugun edozein idazkiri sarrera eman behar zaio, eta zeini zuzenduta dagoen jarri beharko dugu, hau da, eskaera edo kexa nori aurkezten diogun.

Horretarako, arloak zeintzuk diren eta euren lana edo eginkizuna zein den aztertu beharko dugu. Ez da gauza bera isun bat dela eta egindako erreklamazioa edota gazteentzako lokal baten eskaera. Bide diferenteetatik ailegatuko dira heldu behar diren lekura.



Hemen dituzu Arrasateko Udaleko Arloak eta Sailak. Hau guztia irakaslearekin landuko duzue.

ARLOEN EGITURAKETA

ALKATETZA

- ✓ ALKATETZA
- ✓ IDAZKARITZA
- ✓ UDALTZAINGOA

GIZARTE SUSTAPENA

- ✓ OSASUNA ETA ONGIZATEA
- ✓ EMAKUMEA
- ✓ GAZTERIA

BARNE KUDEAKETA ETA KALITATEA

- ✓ PERTSONALA
- ✓ OGASUNA ETA KONTUAK

EUSKARA ETA KULTURA SUSTAPENA

- ✓ KULTURA
- ✓ EUSKARA
- ✓ HEZKUNTZA
- ✓ KIROLAK

HIRIGINTZA ETA OBRAK

- ✓ HIRIGINTZA ETA OBRAK

GARAPEN ESTRATEGIKOA

ZERBITZU, MANTENU ETA AUZOAK

- ✓ ZERBITZUAK ETA MANTENUA

- ✓ ENPLEGU ETA GARAPEN EKONOMIKOA
- ✓ INGURUMENA

Binaka, lotu zutabeak. Zeinen esku egongo da horietako eginkizun bakoitza?

- | | |
|--|---|
| 1) Udaletxea ordezkatu. | a) Udaltzaingoa (Alkatetza) |
| 2) Obra lizentziak, jarduerak jartzeko lizentziak eta establezimenduak irekitzeko lizentziak eman. | b) Ingurumena (Garapen estrategikoa) |
| 3) Obra txikiak egiteko lizentziak eman. | c) Alkatea (Alkatetza) |
| 4) Agirien sarrera-irteerak erregistratu. | d) Gazteria arloa (Gizarte sustapena) |
| 5) Kaleak garbitu. | e) Hirigintza eta obrak |
| 6) Trafikoa zaindu. | f) Euskara (Euskara eta kultura sustapena) |
| 7) Diru sarrerak eta gastuak kontrolatu. | g) Osasuna eta ongizatea (Gizarte sustapena) |
| 8) 60 urtetik gorako pertsonak lagundu eta zaindu. | h) Idazkaritza (Alkatetza) |
| 9) Abiadura eta aparkamentuak kontrolatu. | i) Emakume saila (Gizarte sustapena) |
| 10) Emakumea babesik gabe dagoenean, egoera aztertu eta baloratu. | j) Kultura (Euskara eta kultura sustapena) |
| 11) Jaien antolaketa kudeatu. | k) Zerbitzuak eta mantenua (Zerbitzu, mantenu eta auzoak) |
| 12) Udal diru fondoak erabili, zaindu eta kudeatu. | l) Enplegu eta garapen ekonomikoa (Garapen estrategikoa) |
| 13) Obra proiektua idatzi eta exekutatu, kaleak urbanizatu, parkeak eta lorategiak, oinezko bideak egin, udal eraikinak... | m) Ogasuna eta kontuak (Barne kudeaketa eta kalitatea) |
| 14) Gazteek aisialdi ekintzetan nahiz prestakuntzan, enplegu eta zerbitzuetan behar izaten dituzten eskariei erantzun. | n) Hirigintza eta obrak |

>>

>>

- | | |
|---|--|
| 15) Arrasaten euskararen erabilera sustatu, bertako elkarte, eskola eta entitateekin elkarlanean. | o) Hezkuntza (Euskara eta kultura sustapena) |
| 16) Kirol modalitate ezberdinak praktikatu ahal izateko, herritar guztiei benetako aukera eskaini. | p) Udaltzaingoa (Alkatetza) |
| 17) Gurasoen Elkartearen jarduerak eta gizartearen hainbat sektoretatik hezkuntzari laguntzeko sortzen diren ekimenak finantzatu. | q) Ogasuna eta kontuak (Barne kudeaketa eta kalitatea) |
| 18) Hondakinak, hondakin urak eta kutsadura kontrolatu. | r) Hirigintza eta obrak |
| 19) Enplegua sustatu. | s) Kirolak (Euskara eta kultura sustapena) |
| 20) Langabeak prestatu. | t) Enplegu eta garapen ekonomikoa (Garapen estrategikoa) |

➤ Har ezazue irakasleak banatuko dizuen zuzenketa-orria eta erkatu.

Informazio gehiago nahi baduzue jo ezazue helbide honetara:
www.arrasate-mondragon.net.

2.2

➤ Hironaka jarri eta pentsatu zeintzuk izan daitezkeen gaztetxe edo gazteleku batean egoten diren arazoak. Zertarako jo behar izaten dute gaztetxeek udaletxera? Zer eskatzen dira? Hemen duzue zerrenda bat hainbat adibiderekina, ea osatzen duzuen:

- Herriko plazan gaztetxeari buruzko hitzaldia emateko baimena.
- Barruko horma bat botatzeko baimena.
- Billarrerako mahaia erosteko dirulaguntza.
- Gaztetxea margotzeko dirulaguntza.
- Gaztetxeek errekak garbitzeko asmoa dute. Bilduko duten jendearentzat eskularruak eta abar beharko dituzte. Material hori erosteko dirulaguntza.
- Diru laguntza gaztetxean bertan hitanoari buruzko ikastaroa antolatzeko.
- ...
- ...
- ...

- **Zer gehitu duzue? Zer jarri dute beste taldeetan? Bata bestearenak entzun eta zerrenda osatu.**
- **Jakin badakigu Gazteria Sailak konponduko lituzkeela arazo gehienak, baina horrez gain, zein sailetara zuzendu beharko genuke horrelako eskaera bat? Gazteria Sailik izan ezean, zeinek konponduko lituzke arazo horiek? Aztertu goian esandakoak eta jarri bakoitzaren ondoan nora zuzen daitezkeen.**
- **Talde bakoitzean izenda ezazue bozeramaile bat. Bozeramaileak zein ondoriotara iritsi zireten azaldu beharko du talde osoaren aurrean.**

2.3 Idatzi bat egin behar duzue egoera bat kontuan hartuz

Pentsa ezazu gaztetxeko ohiko bezeroa zarela. Horretaz gain, gaztetxea kudeatzen ere parte hartzen duzu. Joan zen astean, kontzertu baten ostean, komunak guztiz hondatuta geratu ziren. Aurretik ere egoera txarrean zeuden eta behin baino gehiagotan idatzi duzu udaletxera konpon ditzaten eskatuz. Orain, ezinbestekoa da ahalik eta azkarren konpontzea, ez baitaude zabalik edukitzeko moduan.

- **Idatzi udaletxera, azaldu zein den egoera eta eskatu behar diren konponketak egin ahal izateko dirulaguntza.**

Lantxo hau egiteko:

- 1.- Gogoratu aurreko atazan, hau da, "gazteak eta administrazioa" izenekoan zer landu genuen.
- 2.- Ereduak "Idatziak" liburuxkan dituzu, 9. atalean.
- 3.- Kontuan hartu zure datuak, azalpena eta eskaera garbi azaldu behar dituzula.
- 4.- Hemen dituzu ideia batzuk ordena eta osa ditzazun.

✓ GAZTETXEKO KOMUNAK KONPONTZEKO ESKAERA

✓ Eskatutakoa onartuko duzulakoan, ondo izan.

✓ Urriaren 5ean kontzertua izan genuen gaztetxean eta jende ugari bildu ginen bertan.

✓ Komunak konpontzea.

✓ Lehendik ere hondatuta zeuden, baina orain ez daude ezta zabaltzeko moduan ere.

✓ ...



2.4

- **Elkartu zaitetz beste ikaskide batekin. Irakurri elkarri idatzi duzuen eta egin elkarri hobetzeko proposamenak. Hobetzeko proposamen horiek kontuan hartuta osa ezazue aurretik idatzita duzuen.**

C: parrandara autobusean

Ataza honetan parranden inguruan jardungo dugu. Parranda egitea ez dago txarto, baina, nola bueltatu gauean etxera?



1 Proposamen baten inguruko arrazoiak aztertu



Binaka komentatu galdera hauek:

1. Parrandazalea zara?
2. Non eta noiz egiten dituzu parrandak?
3. Gaupasarik egiten duzu ala garaiz bueltatzen zara etxera?
4. Nola bueltatzen zara etxera?
5. Baduzu gaueko autobus zerbitzuari buruzko informaziorik?




Denok esandakoarekin osa ezazue talde osoan gaueko autobus zerbitzuari buruzko informazioa.



"Parrandan autorik gabe"

Entzun eta jaso itzazu hitz egiten duen jendeak ematen dituen aldeko arrazoiak.

-
-
-
-
-
-
-
-
-
-



1.3

➔ Binaka jarrita, osa ezazue jaso duzuen informazioa.

1.4

➔ Binaka, eman ezazue esan dutenaren inguruko iritzia.

1.5

"Autobusez parranda"

➔ Entzun

➔ Ondorengo paragrafo honetan entzun duzuna agertzen da. Hala ere, egia ote da hor agertzen den guztia? Hala ez bada, lokalizatu gezurrak (6 gezur daude) eta jarri egia gezur horien orde.

Gauetako autobus zerbitzua jartzea erabaki du diputazioak. Helburua da gazteek aisialdientarako bidaietan, ahal den neurrian behintzat, ibilgailu pribatua gutxiago erabil dezaten eta joan-etorriak seguruago eta erosoago egin ditzaten. Lehendik ere baziren autobus konpainia batzuk asteburuetakoko gaueko autobus zerbitzua eskaintzen hasiak zirenak; esperientzia horretan oinarritu dira. Izan ere, dagoeneko zerbitzua eskaintzen dutenei gaizki doakie, eskaintzen jarraitzen dute eta.

Autobus konpainiekin harremanetan jarri zirenean, alde batetik esaten zuten gaueko zerbitzuek ohikoek baino kostu txikiagoa dutela eta defizitarioak izango zirela, horregatik Diputazioak ez ditu finantziatuko zerbitzu horiek; eta beste aldetik enpresa horien kezka nagusia da gaueko ordu horietan bidaiariek izan dezaketen portaera, bai gidariaren segurtasun aldetik eta baita autobusek jasan dezaketen kalteengatik ere.

Dena den, autobus konpainia askok eman dute baietza eta larunbat gaueko 23:00etatik igande goizeko 06:00etara bitarteko zerbitzua eskainiko dute. Zerbitzua urriaren 6an jarriko da martxan, eta egun horretatik aurrea, asteburuero ostiraletik igandera bitarteko gau horretan izango da zerbitzua.

Aipatutako esperientzia proba gisa egingo da, 5 hilabeterako. Eta gero, ondorioak aterako dituzte: nola joan den, jendeak erabili duen... Ikusiko balute gazteek euren portaera aldatzen dutela, autoa etxean utzi eta autobusa erabiltzen dutela, aurrerantzean pentsatu egingo lukete asteburu guztirako zabaltzea zerbitzu hori.

Oraingoz 10 autobus jarriko dira lanean eta ibilbidearen arabera ezarriko dira ordutegiak, baina gehienak orduz-ordu edo bi ordutik bi ordura izango dira.

>>

>>

Jakina denez, gazteak ez dira euren herrietan geratzen, asteburuetan batetik bestera mugitzen dira ostiral eta larunbatetan; horren ondorioz, 2.400 bat erabiltzaile espero dituzte gau bakoitzean. Dena den, ez dakite horrela izango den, hori gero ikusi behar baita, hau da, 5 hilabeteko epea amaitzen denean; orduan, zerbitzuak aztertu eta ondorioak aterako dira.

Hauxe izan da Aintzane Lauzurikari, Gipuzkoako Diputazioko Garraio Saileko teknikariari egindako elkarrizketa.

1.6

➔ Binaka erkatu eta aztertu.

➔ Zuzendu denon artean.

2 Eskabidea egiten

2.1

➔ **Jarri taldeka eta eztabaidatu galdera hauen inguruan:**

- Nondik nora jarriko zenukete horrelako autobus zerbitzua? Non ikusten duzue gabezia?
- Esan dituzuen horietatik guztietatik, zeinek izango luke arrakastarik handiena?

Dakizunez, Deba Goienan ere jarri zuten autobus zerbitzu hori. Bi linea hauek hain zuzen ere: Eskoriatza-Eibar eta Bergara-Gasteiz.

Zure koadrilan larunbatero _____ joateko ohitura daukazue eta ez dago _____ joateko ez handik etortzeko autobusik.

➔ **Idatzi udaletxera eta eskatu zerbitzua _____-ino luza dezaten, asko zarete eta harantz joaten zaretenak**

➔ **Idazten hasi aurretik taldeetan erabaki:**

- Zein atal jarriko dituzue?
- Noren izenean idatziko duzue? Zein datu emango duzue?
- Nori zuzenduko diozue eskaera?
- Zer azalduko duzue?
- Zer eskatuko duzue?
- ...



2.2



Trukatu idatzitakoa ondokoarekin eta ikusi zertan den ezberdina zurearekiko.

- Agertu behar diren atal guztiak dauzka? Galdera honi erantzun baino lehen begiratu idatzien egitura azaltzen duen eredu (13. orrialdetik 17. orrialdera eta "Idatziak" liburuxkako 9.puntua).
- Zein da egokiagoa? Zergatik?
- Argia da?



Irakasleari eman.

D: Isunak

Administrazioarekin izaten ditugun harremanetan dena ez da izaten nahi genukeen bezalakoa. Batzuetan gure gustuko ez diren erantzunak jasotzen ditugu, eta hauen artean isunak dira ohiko-
enak. Ataza honetan isunen inguruko kontu hau landuko dugu. Horretaz gain, erreklamazio bat nola egin daitekeen ere aztertuko dugu.

1 Isunen inguruan

1.1

- **Ikus ezazue bideoan isuna jartzeko arrazoietako bat zein izan daitekeen. Horrelakoak askotan gertatzen dira. Zer deritzozue?**
- **Binaka jarrita, erantzun galdera hauei:**
 - Zeintzuk izan daitezke isuna jartzeko arrazoiak?



- Jaso duzu inoiz isunik? Eta zure inguruko edo ezagunen batek?

- **Bikoteko batek azaldu emandako erantzunak talde osoari.**

Orain testu batetik ateratako hitz batzuk irakurriko dituzue.

Herri Aldizkari / arau-haustea / atzera bota / bide publiko / deskargu plegua / ebazpena / eguneko epea / epez kanpoko jakinarazpen / forma akats / garabia / gordailu / gutun ziurtatu / hainbateko bat / helegite / jaso izanaren adierazpen / zerga / ziurtatu / zuritu

↘ **Binaka jarrita, eman erantzuna galdera hauei:**

- Zer buruzko testutik atera ditugu hitzok?
- Zer uste duzue kontatuko digutela testu horretan?
- Hitz guztiak ezagunak zaizkizue? Zein hitz ezagutzen duzue eta zein ez? Hitzen batzuk ezezagunak badira, erabil ezazue hiztegia kontsultak egiteko.

↘ **Azal ezazue bikotean esandakoa besteen aurrean.**

↘ **Irakasleak esan dizuen bezala, testuak hain ohikoak diren aparkaleku isunak jasotzean nolako jokabidea izan behar dugun aholkatzen digu.**

↘ **Binaka edo hirunaka jarrita, esan hauetako baieztapen bakoitza zuen ustez egia ala gezurra den eta zergatik uste duzuen hala dela.**

- Garabiak autoa eramanez gero, garabiaren gastua eta isuna ordaintzea beharrezkoa da autoa berreskuratzeko.
- Autoa eramateagatik beti kopuru bera kobratzen dute.
- Hobe da ahalik eta azkarren ordaintzea automobil gordailukoak haserre ez daitezen.
- Isuna ordaindu eta gero, 30 eguneko epea daukagu errekurtsioa aurkezteko.
- Errekurtsioan gure datuak, isuna jarri digunarenak eta ibilgailuarenak agertu behar dira; baita automobila eramateko arrazoirik ez zegoela ziurtatu ere.
- Etxera gutun ziurtatu bat bidaltzen badigute behartuta gaude gutun hori hartzera.
- Isunaren berri jaso eta hilabeteko epea daukagu errekurtsioa aurkezteko, baina horretarako, isuna ordaindu egin behar da.
- Epez kanpo jakinarazten badigute, preskripzioa alega dezakegu.

↘ **Erkatu ondoko taldekoekin.**

➔ Irakurri testua baieztapen horietaz esan duzuen zuzena den jakiteko.



2003/02/16

APARKALEKU ISUNAK

Itziar Elorza

Gauza normala da automobilaren bila joan eta garabiak eraman duela ikustea. Denoi gertatu zaigu noizbait. Edo, kasurik onenean, isuna baino ez digute jarri, baina automobila ez digute eraman.

Isunarekin ados ez bagaude, gure esku dago neurri bat edo beste hartzea.

Garabiak automobila eraman badigu, garabiaren gastua eta isuna ordaindu beharko ditugu berriro ere hartzeko. Lehenik, ibilgailuak bide publikotik eramateagatik kobratzen den zerga ordaindu beharko dugu. **Zerga hori aldatu egiten da udal batetik bestera;** dena den, diru kopuru finkoa da beti, eta hainbateko bat gehitzen zaio automobil gordailuan igarotako egun bakoitzeko. Ordaintzea izaten da onena, ez baitago beste biderik automobila eskuratzeko. **Gainera, hobe da ahalik azkarren ordaintzea, ordaindu beharrekoak gora egin ez dezan.**

Isuna ordaindu eta gero, hilabeteko epea dugu Udalaren aurrean helegite edo errekurtsioa aurkezteko. Helegite horretan, datu hauek azaldu behar dute: gure datuak eta ibilgailuarenak; bestalde, automobila eramateko arrazoirik ez zegoela ziurtatu behar da.

Garabiak zenbait kasutan baino ezin du gure automobila eraman, esaterako: automobila txoferrik gabe eta bigarren ilaran badago, eta beste automobil bati ateratzen uzten ez badio. Kasu horretan, legea garabiaren alde dago. Isuna atzera bota nahi badugu, frogatu egin behar dugu gure automobila ez zegoela kasu horietako batean.

Isunaren berri behar bezala jaso arte itxaron behar dugu. Automobila gordailutik ateratzean, baliteke isuna une horretan bertan hartzea. Edo, bestela, gutun ziurtatu bat bidaliko digute etxera, jaso izanaren adierazpenarekin. **Gutuna hartu nahi ez badugu, uko egiten badiogu, horren berri eman beharko digute eskualdeko Herri Aldizkariaren bidez.**

Isunaren berri jaso eta gero, 15 eguneko epea dugu helegite edo deskargu plegua aurkezteko. Helegitea aurkeztu baino lehen ez da beharrezkoa isuna ordaintzea.

Deskargu pleguan, automobila eramateko arrazoirik ez zegoela argudiatu behar dugu; edo bestela, gure ekintza nolabait zuritu, behar adina froga aurkeztuz. Frogarik izan ezean, orduan hobe da prozedurak izan ditzakeen forma akatsetan oinarritzea, deskargua aurkezteko.

Preskripzioa eta epez kanpoko jakinarazpenak ohikoak dira. Esaterako, **arau-haustea gertatu zenetik isunaren berri ematen diguten arte bi hilabete igaro badira, preskripzioa alegatzeko aukera dugu.**

Arau-haustea gertatu zenetik ebazpena edo erabakia ateratzen den arte zazpi hilabetetik gora igaro badira, orduan ere posible da preskripzioa alegatzea.

➔ Zalantzarik baduzu, komentatu ikaskideekin eta irakaslearekin.

➔ Ikus dezagun orain zenbateraino ulertu duzun testua eta horko berbak. Horretarako, hemen daukazu irakurri duzun testu bera baina hutsune batzuekin.



2003/02/16

APARKALEKU ISUNAK

Itziar Elorza

Gauza normala da automobilaren bila joan eta garabiak eraman duela ikustea. Denoi gertatu zaigu noizbait. Edo, kasurik onenean, isuna baino ez digute jarri, baina automobila ez digute eraman.

Isunarekin ados ez bagaude, gure esku dago neurri bat edo beste hartzea.

Garabiak automobila eraman badigu, _____-ren gastua eta isuna ordaindu beharko ditugu berriro ere hartzeko. Lehenik, ibilgailuak _____-tik eramateagatik kobratzen den _____ ordaindu beharko dugu. Zerga hori aldatu egiten da udal batetik bestera; dena den, diru kopuru finkoa da beti, eta _____ gehitzen zaio automobil _____-an igarotako egun bakoitzeko. Ordaintzea izaten da onena, ez baitago beste biderik automobila eskuratzeko. Gainera, hobe da ahalik azkarren ordaintzea, ordaindu beharrekoak gora egin ez dezan.

Isuna ordaindu eta gero, hilabeteko _____ dugu Udalaren aurrean _____ edo errekurtsioa aurkezteko. Helegite horretan, datu hauek azaldu behar dute: gure datuak eta ibilgailuarenak; bestalde, automobila eramateko arrazoirik ez zegoela _____ behar da.

Garabiak zenbait kasutan baino ezin du gure automobila eraman, esaterako: automobila txoferrik gabe eta bigarren ilaran badago, eta beste automobil bati ateratzen uzten ez badio. Kasu horretan, legea garabiaren alde dago. Isuna _____ nahi badugu, frogatu egin behar dugu gure automobila ez zegoela kasu horietako batean.

Isunaren berri behar bezala jaso arte itxaron behar dugu. Automobila gordailutik ateratzean, baliteke isuna une horretan bertan hartzea. Edo, bestela, _____ bat bidaliko digute etxera, jaso izanaren _____-arekin. Gutuna hartu nahi ez badugu, uko egiten badiogu, horren berri eman beharko digute eskualdeko _____-aren bidez.

Isunaren berri jaso eta gero, 15 _____ dugu helegite edo _____ aurkezteko. Helegitea aurkeztu baino lehen ez da beharrezkoa isuna ordaintzea.

Deskargu pleguan, automobila eramateko arrazoirik ez zegoela argudiatu behar dugu; edo bestela, gure ekintza nolabait _____, behar adina froga aurkeztuz. Frogarik izan ezean, orduan hobe da prozedurak izan ditzakeen _____-etan oinarritzea, deskargua aurkezteko.

Preskripzioa eta _____-ak ohikoak dira. Esaterako, _____ gertatu zenetik isunaren berri ematen diguten arte bi hilabete igaro badira, preskripzioa alegatzeko aukera dugu.

Arau-haustea gertatu zenetik _____ edo erabakia ateratzen den arte zazpi hilabetetik gora igaro badira, orduan ere posible da preskripzioa alegatzea.

- Jarri taldeka eta hartu irakasleak esandako zatia: 1, 2 edo 3. Bete zati horretako hutsuneak.
- Talde ezberdinetan egon zaretenok nahastu eta azaldu elkarri egin duzuenak. Ados bazaudete, bete testua osorik.

1.5

- Hartu jatorrizko testua eta erkatu zuek egindakoarekin.
- Berbaren batekin zalantza baduzue, galdetu irakasleari.
- Idatz itzazu zure koadernoan gaur ikasi dituzun hiru hitz berri. Pentsatu nola definituko dizkiezun hitz horiek zure ikaskideei.
- Bildu beste bi lagunekin eta azaldu elkarri zein hitz jaso dituzuen eta euren definizioa.

2

Erreklamazioa idazten

2.1

"Trafiko isunak"

- Ikus ezazue bideoa
- Eman iritzia

2.2

- Bideoan ikusi duzuen bezala, posible da helegitea aurkeztu ondoren isuna erretiratzea. Horixe izango da, hain zuzen ere, zure lana: isuna erretira dezaten eskaera egitea. Horretarako, kontuan izan behar duzue hurrengo egoera.

↘ **Baduzu motortxo bat, urruntxo bizi zarelako, eskolara etortzeko erabiltzen duzuna. Atzo arratsaldean, eskolatik irten ondoren, motorra liburutegi ondoan txarto aparkatuta utzi zenuen. Bueltatu zinenean udaltzainek isuna jarrita zuten. Aurkeztu erreklamazioa edo helegitea udaletxean. Horretarako, "Idatziak" liburuxkan duzun eredua erabil dezakezu.**

- Idazten hasi aurretik erabaki zein arrazoi emango dituzun.
- Idatzi pentsatutakoaren arabera.



A large empty rectangular area with a dashed orange border, intended for writing a response to the scenario.

2.3

↘ **Emaiozu idatzitako testua irakasleari. Berak, zuzendu ondoren, itzuliko dizu.**

E: herrietako festak

Oraingoan herriko eta inguruko herrietako jaien gainean arituko zara. Festazalea zara? Zeintzuk dira zure jairik gustukoena? Zein iritzi duzu zure herriko jaien inguruan? Hori guztia argitu behar duzu ataza hau amaitu baino lehen.

Zuen herriko festetako programan ekintza berri bat sartzeko proposamena ere egingo duzue.



Herrietako jaiak

1.1



Ikus dezagun zenbat dakizun inguruko herrietako jaietarako lot itzazu herriak eta jaiak.

- | | |
|---------------------|-----------------|
| 1. Pentekoste jaiak | a. Aretxabaleta |
| 2. San Juanak | b. Gernika |
| 3. San Pedroak | c. Bergara |
| 4. Andramaixak | d. Oñati |
| 5. San Migelak | e. Zornotza |
| 6. San Bartolomeak | f. Eibar |
| 7. San Faustoak | g. Ordizia |
| 8. San Rokeak | h. Arrasate |
| 9. Karmenak | i. Eskoriatza |
| 10. Santa Anak | j. Elgoibar |
| 11. San Juanak | k. Durango |
| 12. San Pelaioak | l. Zarautz |



Binaka elkartu eta erkatu egin duzuenak.



Klase osoan zuzenketa egin.

"Nolako jaiak, halako gazteak"

Herri guztiak dira ezberdinak, festa guztiak dira ezberdinak. Horregatik, izaeraren edo zaletasunaren arabera, parranda non egin pentsatzea eta aukeraketa egitea da onena.



Irakur ezazu Gaztetxuloko testua.



NOLAKO JAIAK, HALAKO GAZTEAK

Herri guztiak dira ezberdinak, festa guztiak dira ezberdinak. Horregatik, izaeraren edo zaletasunaren arabera, parranda non egin pentsatzea eta aukeraketa egitea da onena. Eta nolakoa zara zu?

Hona hemen zenbait ideia.

Destroyer-entzat

Berdin zaizu etxera itzultzeko autorik edo autobusik ez izatea. Are gehiago, etxetik irten orduko, argi zenuen gaupasa egingo zenuela. Horietakoa bazara, Oion (abuztuko azken asteburua), Biasteri (abuztuak 29), Lizarra (abuztuak 1) edota Bermeo-Elantxobeko jaietara (uztailak 22) joatea gomendatzen dizugu. Ez duzu lo-kuluxkarik egiteko paradarik izango. Oion, Biasteri eta Lizarran primeran pasatuko duzu, gazteek jaietarako propio prestatutako "txamizo-kobazulo"-etan. Dasta itzazu, huts egin gabe, gazteek eginiko edabe magikoak: zurrakapotea, sangria... Bestela, Oionen eta Biasterin, ardoa ez zaizu faltako. Bermeora joatea aukeratuz gero, ez ahaztu arrantzale zapia eramatea. Magdalena egunean, parrandazaleak Bermeotik Elantxobera joaten dira eta bertan, sekulako festa egiten dute. Izugarria!

Bekatarientzat

Oro har, Euskal Herriko jai gehienak santu baten inguruan egin ohi dira. Hala ere, badira besteak baino "fededunagoak" diren festak. Eta fededunen artean fededunetakoak Azpeitiakoak ditugu. Nola ez, bertan jaio baitzen San Inazio Bizkaiko eta Gipuzkoako zaindaria! Haren omenez, San Inazio egunean (uztailak 31), prozesioa egiten dute herriko kaleetan. Dotore-dotore jantzita, santuaren irudia sorbalda gainean hartuta, herriko kale nagusiak zeharkatzen dituzte, izerditan, gainerako herritarren begiradapean. Ez al dira nekatuko? Bekataria bazara, eta otoitz egin nahi baduzu, Azpeitiara jo dezakezu zure bekatuak "zuritzera". Noski, ez da komeni gero, gauez, Azpeitiako taberna zuloetan berriro bekatuak egiten hastea... Eta badira festa prozesiozale gehiago: Nafarroako Tulebras (abuztuak 19) eta Arabako Albeiz eta Araia (ekainak 23) herrietakoak, esaterako.

>>

>>

Folklorezaleentzat

Badira oraindik garai bateko festei eta ohiturei eusten dieten herriak: herri kirolak, trikitixa, dantzaldiak, koadrilen arteko jokoak, bertso saioak... Girotxo hau atsegin baduzu, gustura ibiliko zara Usurbil eta Ataungo Santa Ixabeletan (uztailak 2), Astigarragako Santiotan (uztailak 25) eta Igeldoko, Behintza-Labaiengo eta Erratzuko San Pedrotan (ekainak 29). Behintza-Labaienen, Erratzun eta inguruko herrietako jaietan Modesto musikaria da dantzaldietako errege. Berak, bakarrik, plazak betetzen ditu. Iaioa da Modesto musika tresnekin; gitarra, teklatuak eta esku soinua jotzeaz gain, abestu ere egiten baitu gizonak. Usurbilen, salda gozoa emango dizute gosaltzeko, eta klabelin zuri edo gorriak ere oparituko dizkizute. Eta Igeldon, gaua amaitutakoan, baratxuri zopa. Zerbait gehiago eska al daiteke?

Erromantikoentzat

Zure mutil edo neska-lagunarekin eskutik helduta lasai-lasai ibiltzea gogoko baduzu, zarata handirik gabeko jaietara jotzea duzu onena. Lapurdiko Larresoro (abuztuko azken asteburua) edo Nafarroa Behereko Bidarraiko (uztailak 14) jaiak xarma handia dute. Jaiotan, ez duzu jende uholdearen azpian zapalduta bukatuko. Dena dela, bada gustura ibiltzeko giroa: txarangak, herri bazkaria, haurrentzako jokoak, dantzaldiak... Jakina, pilota partida ederrak ikusteko aukera izango duzu, Ipar Euskal Herrian ohikoa baita jaietan pilota partidak antolatzea. Ostatuak ordu txikiak arte egon ohi dira zabalik aste-buruetan. Hala ere, parrandarik egiteko asmoa ez baduzue, astegunetan joatea duzue onena.

Kirolzaleentzat

Nork dio parranda eta kirola ez direla bateragarriak? Horixe bera egiten dute Bilboko konpartsek Aste Nagusian (abuztuaren hirugarren astea). Ez al da kirola txoznen paradisu batetik bestera ibiltzea? Orain, "Txomin Barullo"-ra; jarraian, Bizkaiko Emakumeen Asanbladarenera... Eta bien bitartean, joko eta lehiaketa dibertigarriak... Horrela hamar egunez, Marijaia erre eta bere errautsak Nerbioi ibaira bota arte. Dena den, seguru asko, doping azterketa egingo balute, askok ez lukete azterketa gaindituko! Eta kirolarekin jarraituz, ezin aipatu gabe utzi bestelako proba bitxiak. Astrabuduako San Lorentzotako (abuztuak 8) korrikalariak kulero eta gantzontzilotan parte hartzen dute jaietako lasterketan.

Erriberako Marzillako San Bartolometan (abuztuak 24) aitzurra jaurtiketa txapelketa egiten dute. Hala ere, Kortezubiko Santiotan (uztailak 25) egin ohi dira Euskal Herriko kirol probarik bitxiak edo arraroenak -buruhandiena, tripandiena...-.



Pentsa ezazu zu zein taldetakoa zaren: destroyer-a, bekataria, folklorezalea, erromantikoa ala kirolzalea. Ez bazara talde horietako batekin ere identifikatzen, sortu bat zeure neurri-ra.



1.3



Hiruko taldeetan komentatu puntu hauek:

1. Zer deritzozue sailkapenari?
2. Zuetako inor sartzen da bete-betean horietako talderen batean?
3. Zuen ustez zein taldetakoak dira ohikoenak Euskal Herriko gazteen artean?
4. Azaldu zuetako bakoitzaren joerak.

2

Herriko jaietako programa

2.1

"Herriko jaietako programa"



Binaka eztabaidatu galdera hauen inguruan:

1. Zeintzuk dira zure herriko jairik politenak? Zergatik?
2. Herriko jaietan herrian egoten zarete ala kanpoan?
3. Herrian egoten bazarete, hartzen duzue parte jaietan? Nola edo zertan?
4. Zer dago soberan eta zer faltan zuen ustez?



Har ezazue jaietako egitaraua eta aztertu. Egitarauko zer da egokia zuentzat edo zuen adinekoentzat? Zergatik?



Denon artean hitz egin honetaz.

2.2

Lantxo honetan udaletxera idatzi beharko duzu zeuen gustukoa eta jaietako egitarauan txertatzeko modukoa den zerbait eskatzeko.

Hemen dituzu ideia batzuk:

- Ken 7ren edo Gatiburen kontzertua.
- Disko festa
- ...



Hirunaka jarrita, erabaki ezazue zer den eskatuko duzuen.



Eskaera idatzi, bakoitzak berea.



2.3

- Eskaerak horman eskegi.
- Gustukoena aukeratu.
- Nahi izanez gero, bidali udaletxera aukeratu duzuen.

F: kirolak

Jakinekoa da kirola egitea garrantzitsua dela. Dena den, eta beste gauza askorekin gertatzen den bezala, kirolak ere bere neurria du. Egiten duzu kirolik? Neurrian? Herrian zein aukera daukazu? Honetaz guztiaz jardungo duzu ondoren. Amaitzeko, Udalari kexa idatzia bidaliko diozu.

1 Kirola eta ni

1.1

➤ **Hirunaka bilduta, komentatu galdera hauek:**

1. Kirolik egiten duzue? Zein?
2. Zein helbururekin egiten duzue?
3. Zertan laguntzen du kirola egiteak?



1.2

"Gaztetxoak eta kirola"



Irakur itzazu ondorengo galderak:

1. Lesio fisikoez gain, zer-nolako arazo gehiago izaten dira irakaslearen ustez?
2. Zein izaten da arazorik handiena?
3. Zein adinetan antzeman dakiok gazte bati badituela dohainak zerbait izatera iristeko?
4. Askotan, nahiz eta fisikoki oso onak izan, zergatik ez dira goi-mailako kirolari izatera iristen?
5. Zer deritzo Etxebarriak lehiakortasunari eta formakuntzari buruz?
6. Zer kritika egiten du irakasleak gurasoen jarreraren inguruan?
7. Etxebarriaren ustez umeak gehiegi behartzen ditugu? Zein arrazoi ematen ditu?



Entzun ezazu Iñaki Arratibeli eta Joseba Etxebarriari egindako elkarrizketa eta eman erantzuna goiko galdera horiei.

1.3



Bildu binaka eta erantzunak erkatu.



Zalantzarik izanez gero, beste bikote bati galdetu.

2 Herriko kirolak

2.1

➤ Talde txikitan jarrita zerrendatu zure herrian zein kirol egin daitekeen eta non.


- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.

➤ Beste taldeetako en iritziak kontuan hartuta osa ezazue zeuen zerrenda.

2.2

➤ Zure lagunak eta zu oso skatezaleak zarete. Zure herriko parke batean badago kirol hau egiterik baina beti jendez beteta egoten da. Lehen, "U" a zegoeanean, ez zen hainbeste jende ibiltzen eta zuek gusturago joaten zineten. Gero "U" hura hondatu egin zen; ez dakizu zein arrazoiengatik, konpondu egin beharrean, kendu eta berria jarri zuten.



- 
- Kexa testu bat idatzi behar duzu.
 - Eredua "Idatziak" liburuxkaren 58. orrialdean duzu.
 - Azaldu zure kexa "U" a kendu zutelako eta egin zure proposamena.
 - Skatezalea ez bazara, eta herrian beste premiaren bat ikusten baduzu, aukeratu zure gustuko kirola eta egin zure proposamena.
 - Nahi izanez gero, bidal ezazue udaletxera.

A large empty rectangular area defined by a dashed border, intended for writing or drawing.

Autoebaluazio-orria



Administrazioari eskaera bat egiten diogunean osagai hauek izan behar ditu:

- norentzakoa
- izenburua
- azalpena
- oina

Baten bat falta al da?



Gaztetxeko kudeaketan parte hartuko bazenu, udaleko zein arlotara idatzi beharko zenuke hitzaldi bat antolatu beharko bazenu? Jarri, gutxienez, bi arlo edo bide.



Arazoren bat izan edo zerbait eskatu nahi izanez gero, egunen batean, idatziko al duzu udalera? Lehen baino hurbilago sentitzen duzu?



Ataza hauetan jorratu ditugun gaiak zure interesekoak izan dira? Ordena itzazu interes handiena piztu dizunetik hasita.



Ataza hauetan aipatu ditugun gaiak aukera eman dizute zeure iritzia argi eta garbi azaltzeko?



Zer moduz moldatu zara ikaskideekin eztabaidatzeko, erabakiak hartzeko, ados jartzeko? Gustura aritu zara talde-lanean?



Har ezazu tartetxo bat eta egin ikastunitate honetako atazen ebaluazioa: zer gustatu zaizu eta zer ez, zer egin zaizu errazen eta zer zailen, zein baliagarrien...

Bete ezazu lehenengo zeuk bakarrik eta komentatu gero ikaskideren batekin edo batzuekin.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



ANTZUOLAKO
UDALA



ELGETAKO
UDALA



BERGARAKO
UDALA



ONATIKO
UDALA



ARRASATEKO
UDALA



ARETXABALETAKO
UDALA



ESKORIATZAKO
UDALA



LEINTZ GATZAGAKO
UDALA



LEIZOR
UDALA